

45. ALDIZKARIA - 2008ko apirilaren 9a

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK

ANTSOAIN

Udal ordenantza, Antsoaingo Gazteriaren Etxea arautzen duena. Behin betiko onespena

Antsoaingo Udalak, 2007ko abenduaren 19an egin osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea Antsoaingo Gazteriaren Etxea arautzen duen udal ordenantza. Iragarkia 2008ko 10. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean eman zen argitara, urtarrilaren 23an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 21. artikuluari jarraikiz, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, behin betikoz onetsi da Antsoaingo Gazteriaren Etxea arautzen duen udal ordenantza. Ondotik haren testu osoa eranstean da.

Antsoainen, 2008ko otsailaren 29an.-Alkatea, Antonio Gila Gila.

ANTSOAINGO GAZTERIAREN ETXEAREN FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Zioen azalpena

Antsoaingo Gazteriaren Etxea Udalaren esparru bat da baliabideez hornitu gogo duena, herriko 12-30 urtekoen aisialdirako eta denbora liberako eskaera betetzeko eta bertan gazteek aukera izan dezaten beraien ereduak garatzeko aisialdiari begira.

Helburu hori lotzeko hainbat arlotan banatu dira jarduerak:

-Antsoaingo gazteendako informazioa.

Baliabide honetan gazteek era guztietako zalantzak galde ditzakete. Lantalde kudeatzaileak ahalik eta informazio zehatz eta osoena ematen egiten du lan.

Banan-banako edo taldeko arduraz gain -zein den beharra- kontsultarako panelak ere eskaintzen dira informazio eguneratuarekin lan, aisia, denbora libre, boluntarioria, prestakuntza eta abarri buruz.

Informatikako ekipoak eskaintzen dira, interneteri lotuak, norberak erabiltzeko.

-Topaketa eta sozializazioa, aisialdian elkartzeko esparrua,

Arlo honetan sartzan dira kirol material ludikoaren mailegua, gelak erabiltzea eta gazteek antolatutako lehiaketa ludikoak, lantalde kudeatzaileak lagunduta, kasua bada.

-Sustapen soziala eta kulturala, ikastaro eta tailerrak programatzeko esparrua. Eskaera ikusita, programazio bat egiten da, gazteen interesak betetzeko asmoz. Gazteen protagonismoa bultzatuko da, jarduerak antolatu nola garatzerakoan.

-Elkarteak, partaidetza eta boluntarioak. Herriko elkartei laguntza eta aholkua ematen zaie haien eguneroko lanean, baita kudeaketa burokratikoetan ere, elkarteak sortu eta kudeatzeko. Boluntarioria ere bultzatzen da, lan aktiboa izan dadin Antsoaingo herritarren garapenean.

-Arlo teknikoa eta administratiboa: Udalaren arlo guztiekin koordinatuta egiten da lan funtzionamendua ez bikoizteko eta lan ezin hobea egiteko herritarrentzat. Gainera, herriko gazteekin diharduten organoekiko lankidetzak handitzen saiatzen da.

Zerbitzuen esparru honetan, Antsoaingo Gazteriaren Etxeko erabiltzaileek badute eskubidea bertako zerbitzu

publikoaren ondasun bat bezala erabiltzeko; dena dela, gizabidez baliatu behar da eskubide hau, ondasun publikoen erabilerari buruzko xedapenek eta pertsonak zein ondasunak errespetatu beharrak ezarritako mugen barrenean.

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honek xede hauek ditu:

Gazteriaren Etxeko instalazioen erabilera arautzea, zerbitzu publiko bati dagokion moduan; izan ere, jabari publikoko ondasuna da, zerbitzu publikoa alegia, Antsoaingo 12-30 urteko gazteen aisialdiko eta denbora libreko jarduerak garatzera bideratua eta bertan Antsoaingo gazteek aukera izan dezaten beraien ereduak garatzeko aisialdiari begira.

Ondasun publiko hori eta haren parte diren instalazio eta elementu guztiak babestea izan ditzaketen eraso, aldaketa eta erabilera bidegabean aurka, instalazioen erabilera zentzuzko eta antolatua bermatuz, baita sarbidea eta erabilera ere herritarrei baldintza berdinetan.

Eskura dauden giza baliabideak zein materialak erabat aprobetxatzea.

Bizikidetzeta eta errespetuko gutxieneko arau batzuk ezartzea Gazteriaren Etxeko erabiltzaileentzat, baita zentroko kudeaketa eginen duten langileekiko harremanentzat.

Bizikidetzeta sozialaren kontrako jarduketa eta jokabideak zuzentzea.

Bizikidetzeta arauak hausten dituztenen errehabilitazioa sustatzea.

2. artikulua. Udal eskumena eta aplikazio eremua.

Zein den ere instalazioetan egiten den jarduera, Antsoaingo Udalak esku-hartze administratiboa, kontrola eta zainketa eginen ditu, baita agintaritzari dagozkion eginkizun guztiak ere, bere eskumenekoak badira.

Ordenantza honetan udal eskumena babesteko aurreikusitako neurriak ez dira beste administrazio publiko batzuen eskumenen kaltean izanen.

Ordenantza honek herritarren jarduketa eta omisioak arautzen ditu Antsoaingo Gazteriaren Etxeari buruz, zerbitzu publikoko ondasun demaniala den aldetik.

3. artikulua. Antsoaingo Gazteriaren Etxearen xedea.

Gazteriaren Etxeak aisialdiko eta denbora libreko jarduerak garatuko dituzten ekintzak aurrera eramatea du helburu nagusia, lehen artikuluan aipatu populazioaren onerako.

Salbuespen gisa, aipatutakoez bestelako jarduerak egin daitezke zentroan. Udal organo eskudunak alde zuzenetik baimendu beharko ditu, 30 urtez gorako jarduerak bezala. Horrelako baimena emateko, irizpide hauetako bat hartu ahalko da:

Egin beharreko jarduerak interesgarriak izanen dira Antsoaingo gazteentzat edo, bestela, udalerriko Gazteria alorreko helburuekin bat eginen dute.

Irabazteko asmorik gabeko jarduerak, antolatzaileen aldetik.

Antsoaingo Udalak antolatutako egintzak, haien ezaugarriengatik beste udal eremuetan edo egoitzetan egin ezin direnak, edo haiek egiteko eremu hori egokitzat jotzen denean.

4. artikulua. Funtzionamenduaren araubidea.

Gazteriaren Etxeak, bere funtzionamendurako, ondoko organoak izanen ditu:

Zuzendaritzako organoa: gazteen ordezkariak, zentroa kudeatzen duen entitatearenek eta politikoez osatuko dute. Jarduerari eta haiek egiteko baliabideei buruzko urteroko proposamena onetsi beharko du. Halaber, begiratu du zentroan bereizkeriarik edo bazterkeriarik sor ez dadin. Organo hau urtean bitan, gutxienez ere, bilduko da lantalde kudeatzailearekin koordinatzeko, eta horrek eskatzen duen bakoitzean.

Lantalde kudeatzailea: gazteen ordezkariak eta zentroa kudeatzen duen entitatearenek osatuko dute. haren eginkizunak izanen dira jardueren buruzko proposamena prestatzea, jardueren barne funtzionamendua arautzea, tokiak banatzea, bizikidetzaren garapena egituratzea eta haren aurkako jarduerak zuzentzea eta zuzendaritzako kontseiluari neurri bereziak hartzeko proposamena egitea, beharrezkotzat jotzen dutenean.

-Gazte batzarra: haren eginkizunak izanen dira jardueren proposamenak egitea lantalde kudeatzaileari, informazioa jasotzea jarduera horien eta arazoaren eta bizikidetzaren hobetzeko proposamenen gainean eta funtzionamendu orokorra ukitzen duten erabakiak eztabaidatzea. Betiere bide bat bermatuko da banakako proposamenendako, baina bereziki baloratuko dira pertsona eta talde ezberdinen arteko akordioak.

5. artikulua. Antsoingo Gazteriaren Etxeko erabiltzaileek bete beharreko baldintzak.

Hauek dira instalazioak erabili gogo dituztenek bete beharreko baldintzak:

-Lehentasuna du Antsoainen erroldatua egoteak.

-12 - 30 urte izatea.

6. artikulua. Printzipio orokorrak.

Gazteak behartuta daude herritarren bizikidetzaren errespetatzera zentro horretan eta instalazioak zerbitzu publiko bezala erabiltzera, gainerako gazteek haiek erabiltzeko eskubidea errespetatuz; hortaz, debekatuta daude zentroaren barrenean bizikidetzaren hautsi, eragozpenak sortu, ondasun edo elementuetan kalte egin edo pertsonen zor zaien errespetuari huts egiten dioten portaerak, ordenantza honetan ezarritako moduan.

Gazteek eskubidea dute instalazioak libreki erabiltzeko eta beren askatasuna errespetatuko zaie. Eskubide horrek ondasun publikoen erabilerari buruzko xedapenak eta gainerako pertsonak errespetatu beharrez ezarritako mugak ditu. Gazteen eskubideak eta betebeharrak

Gazteriaren Etxean

7. artikulua. Gazteen eskubideak

Instalazioak zertarako diren, gazteek hartarako erabiltzeko eskubidea dute, baita bertan egiten diren jardueretan parte hartzeko ere.

Honako hauek ere zentroko erabiltzaileen eskubideak dira:

Errespetuz eta modu duinean tratatua izatea.

Gazteriaren Etxea erabiltzea, haren ondasun eta zerbitzuak baliatuta.

Informazioa eta aholkua hartzea, bai jarduerena bai kezka, zalantza, arazo eta abarrena, taldeko kide gisa zein bakarka.

Egokiak iruditzen zaizkion erreklamazio eta oharrak egitea Antsoingo Udalarari.

8. artikulua. Gazteen betebeharrak.

Baliabidean dauden langileak eta gazerabiltzaileak errespetatzea, tratatu duina emanez.

Zentroko ondasun eta zerbitzuak behar bezala erabiltzea, ondasunak (altzariak, materialak eta abar) zein lokala bera errespetatuz.

Udalak beretzat jotzen dituen jarduerak izan ezik, gazteen kontura dira honako hauek:

Edozein tasa, kontribuzio edo zerga ordaintzea.

Egile eskubideak ordaintzea, lege horrelakorik egokitzuz gero.

Legez aginduzkoak diren baimen administratiboak.

Jarduera gauzatzeko behar diren elementuak muntatu eta kentzea, antolamendua lantalde kudeatzailearena ez denean, eta betiere, lantalde horrek izendatutako langileak aldiro ematen dituzten oharrei kasu egitea.

Instalazioak erabili, mantendu eta zaintzea

9. artikulua. Tokiak erabiltzeko baldintzak:

Instalazioek segurtasunari, osasungarritasunari eta apaindura publikoari lotutako baldintzak beharko dituzte bete.

Zentroko lantalde kudeatzaileak emandako jarraibide eta arauak beharko dira bete uneoro.

Instalazioen erabilera arruntaren ondorioz edozein kalte edo gorabehera ikusi edo gertatuz gero, zentroko lantalde kudeatzaileari jakinaraziko zaio.

Udalak ez du inoiz ere erantzukizunik izanen instalazioen barrenean utzitako gauzen gainean.

Debeku da erretzea, baita alkohola eta edozein sorgokari hartzea Gazteriaren Etxearen barrenean.

Entitate antolatzaile guztiak beren gain hartuko dituzte eskatzen ahal zaizkien erantzukizun zibil, penal, administratibo, laneko zein zerga arlokoak edo bestelakoak, eta haiena baino ez da izanen egintza edo omisioen ondoriozko kalte eta galerengatiko kalte-ordainen erantzukizuna; alde horretatik, Udala libre dago edozein erantzukizunetik.

Entitate antolatzailea behartua dago agintaritzari eta erakunde eskudunei beharrezko diren baimen guztiak eskatzera, egin nahi duen jarduerarako.

Gela bat erabiltzeko, leku irekietan izan ezik, lantalde kudeatzaileari adierazi eta "Jardueren eskabidea" beharko da bete, baita ezartzen diren baldintza orokorrak halako kasu batzuetan, ordutegiak, parte-hartzaileak, behar den materiala eta bestelakoak bateragarri egiteko. Hiru hilabeterako lagapenetan, alde aurretik eskatuko da tokia, horretarako adieraziko diren egunetan.

Arau orokor gisa, Antsoingo irabazteko asmorik gabeko talde, elkarte edo pertsonak egindako eskaerak onartuko dira. Lehenetsuna izanen dute udalerritik kanpoko jendeak eskatutakoen aldean.

Udalak ez du inongo erantzukizunik izanen jendeak egiten dituen gauzengatik, entitate antolatzailearena baita erantzukizun hori.

Ekitaldia amaitzean, entitate antolatzailea arduratuko da instalazioak erabiltzeko ongi geldi daitezen, ekitaldia hasi aurretik zeuden egoera berean, eta instalazioez arduratzen diren langileek ikus-onespena eman beharko diete.

Entitate antolatzaileen kontura da, instalazioak behar bezala ez erabiltzeagatik egiten diren hondamen eta kalteak konpondu edo ordaintzea, zein den ere arrazoia edo zergatia. Horretarako, Udalak aurkeztuko dio likidazioa, sortutako gastu orokor gisa adostutako errekararekin, non ez duen berak zuzenean hartzen egin behar diren konponketen ardura, Udalak hautatzen duen udal teknikariaren zuzendaritzapean, eta horren adostasunarekin.

Udaleko zerbitzu teknikoek edozein momentutan ikuskatzen ahal dituzte jarduera egiteko instalazio osagarrien muntatze eta desmuntatze lanak, eta entitate antolatzaileek horren gainean egiten dizkieten ohar eta jarraibide guztiak onartu eta bete beharko dituzte.

Aldi baterako eta lantalde kudeatzaileak baimenduz gero, partikularrek zentroko biltegi aldeak erabiltzen ahalko dituzte tresnak, hainbat instrumentu, materiala eta abar uzteko. Udala ez da biltegian gordetako elementuen kargu egiten, haiek hondatu, galdu edo ebatsiz gero.

Udaleko langileek edo entitate antolatzaileak behar bezala kreditaturiko adituek erabiliko dituzte ikus-entzunezko baliabideak, Gazteriaren Etxeko lantalde kudeatzaileak bere adostasuna eman ondotik.

Instalazioetan ez da animaliarik sartuko. Itsu-zakurrak sartzeko ahal dira, baldin eta identifikatuta egon, beren lana egin eta higiene eta osasungarritasun baldintzak betetzen badituzte, Ikusmen urriko pertsonak itsuaurreko zakurrekin tokietan sartzeari buruzko urriaren 8ko 10/1993 Legearen arabera.

10. artikulua. Publizitatea.

Orokorrean, instalazioen barrenean ezin da inongo publizitate eta propagandarik egin, Udalak kasu bakoitzean espresuki baimentzen duena izan ezik.

Gazteriaren Etxean egin eta Udalak diruz laguntzen dituen jarduera guztietan Udalaren logotipoa ezarri beharko da jardueraren dokumentazioan eta propaganda idatzian zein grafikoan, Udalbatzak onetsitako modelo

tipografikoekin.

Zehapenen araubidea

11. artikulua. Xedapen orokorrak.

1.-Neurriak eta, azken finean, zehapenak xedatzea, Udaleko organo eskudunaren esku geratuko da. Horrek zehaztuko ditu ezartzen dituen neurriak edo zehapenak.

Neurri edo zehapen guztiak berreziketaren balore eta printzipioekin bat bideratuko dira. Batez ere heziketa neurriak sustatuko dira.

Halaber, elkarrizketa bidezko konponbidea sustatuko da uneoro, elkarbizitzak sortzen dituen arazoetarako neurri funtsezko eta nagusi moduan. Bide hori agortuz gero, bigarren mailako neurriak hartuko lirateke, aurretik aipatu printzipioan, berreziketan alegia, oinarriturik, ohiko elkarbizitzarekin jarraitzeko era egokian.

Azkenik, organo eskudunak horrela erabakitzen badu, zehapen ekonomikoak edo zigorra dakartenak erabiliko dira. Mota horretako zehapenak salbuespen gisa hartuko dira betiere, bereziki larriak diren egitateengatik, aldean artean ez badira zuzendu aurreko lerroaldean azaldutako bidetik. Halaber, zehapen guztiak berreziketa printzipioarekin bat etor daitezzen saiatuko da.

Administrazio Publikoek zehapen ahalmena erabiltzeko darabilten legezko eta arauzko prozedurari jarraituko zaio zehapenak jartzeko.

2.-Zehapen prozedura hasteko eskumena duen organoak dakienean gertaerak arau-hauste administratiboa ez ezik, zigor-zuzenbideko arau-haustea ere izan daitezkeela, organo judizial eskudunari jakinaraziko dio eta geldirik utziko dute zehapen prozedura -hasita badago-, harik eta agintari judizialak bere iritzia eman arte.

Zehapen prozedura geldirik dagoen bitartean, etentzat joko dira bai arau-haustearen preskripzio epea, bai prozeduraren beraren iraungipena.

12. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.

Ordenantza honetan ezarritakoaren kontrako arau-haustek, egintzak nahiz omisioak izan, oso larritzat, larritzat edo arintzat joko dira.

13. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Oso larriak dira ondokoa eragiten duten arau-haustek

- a) Pertsonen behin eta berriro errespetua galtzea eta mehatxuak edo eraso fisikoak egitea, Antsoango Gazteriaren Etxeko erabiltzaileei nola profesionali.
- b) Instalazioetako beste erabiltzaile batzuen edo arduradunen kontra gatazka, zalaparta, eraso fisiko edo hitzezkoak eginez instalazioen funtzionamendu egokia nahastea.
- c) Instalazioak edo materiala hondatzea nahiz ebatsi edo lapurtzea, funtzionamenduari kalte larria eginez, eta berdinean erabiltzaileen gauzekin.
- d) Droga saltzea instalazioen barrenean.
- e) Ezarritako ordutegitik kanpo instalazioetan sartzea.
- f) Arau-hauste larrietan berrerortzea.

14. artikulua. Arau-hauste larriak.

Arau-hauste larriak honako hauek dira

- a) Erretzea, baita alkohola eta edozein sorgokari hartzea ere Gazteriaren Etxearen barrenean.
- b) Instalazioen arduraren dute langileen esanei kasurik ez egitea, baita langile arduradunak iraintzea edo errespetu galtzea ere.
- c) Instalazioak edo materialak hondatzea, funtzionamenduari kalte larrikin egin gabe.

d) Zentroan mozkortuta edo drogaren batek jota sartzea.

e) Hiru hutsegite arin egitea egun berean.

15. artikulua. Arau-hauste arinak.

Honakoak dira arau-hauste arinak:

a) Noizean behin errespetua galtzea pertsoneri, hala zentroko erabiltzaileei nola profesionali. Arau orokor gisa, pertsoneri errespetua galdutako kasuetan, hitz egitea bilatuko da zehapena jarri aurretik, baldin eta ukitutakoak prest badaude.

b) Udalaren materialean edo altzarietan kaltea egiten duten edo egin dezaketen ekintza edo portaera desegokiak.

c) Instalazioetan edozein animalia sartzea.

d) Instalazioko funtzionamendu orduak ez errespetatzea.

e) Instalazioen funtzionamendu egokia lardaskatzea, gainerako erabiltzaileei traba egiten ahal dieten oihuak eginez, baita lasterka, jauzi edo bulka egitea, edo gainerako erabiltzaileei traba egin edo beroriek arriskutan jar ditzakeen edozein ekintza, eta oro har gainerako gazteak gogaitzen ahal dituen edozein gauza egitea.

f) Ordenantza honetan ezarritakoaren kontra egiten ahal dion beste edozein jarduketa, larritzat edo oso larritzat hartua ez bada.

16. artikulua. Zehapenak

Arau-hauste arinei zehapen hauek jartzen ahal zaizkie:

-750 euro bitarteko isuna.

-Aldi baterako botatzea; hilabeterako, gehienez ere.

-Ohartarazpena.

Arau-hauste larriei zehapen hauek jartzen ahal zaizkie:

-751 - 1.500 euroko isuna.

-Aldi baterako botatzea; 2 urterako, gehienez ere.

Arau-hauste oso larriei zehapen hauek jartzen ahal zaizkie:

-1.501 - 3.000 euroko isuna.

-Behin betiko debekua instalazioetan sartzeko.

17. artikulua. Erantzuleak.

Ordenantza honen aurkako arau-hausteak egin dituztenak dira haien zuzeneko erantzuleak.

Oro har, kalteen erantzule solidarioak izanen dira pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, baldin eta legezko betebeharra badute beste batzuek egin ditzaketen administrazioko arau-hausteei aurre hartzeko.

Erantzulea adingabea izanez gero, edo hari egotzi ahal ez izateko lege arrazoiren bat izanez gero, erantzuleak gurasoak, tutoreak edo legezko zaintza dutenak izanen dira.

Arau-haustea dakarten jarduerak hainbat pertsonaren artean gauzatzen direnean, guztiak izanen dira erantzule modu solidarioan.

18. artikulua. Zehapenen graduazioa.

Aurreko artikuluen arabera sailkatu ondoren ezarri beharreko zehapena graduatzeko, hurrengo inguruabarrak hartuko dira kontuan:

a) Urtebetean larritasun handiagoko arau-hauste bat edo larritasun bereko edo txikiagoko bi arau-hauste egitea,

ebazpen irmoak horrela adierazten duenean.

- b) Nahita egina den.
- c) Zerbitzuari egin zaion kaltea.
- d) Noraino hartu den parte.
- e) Gertaerek gizartean duten garrantzia edo oihartzuna.
- f) Zer kalte egin den eta haien larritasuna.
- g) Egindako kaltea prozedura ireki baino lehen konpontzea.

19. artikulua. Itundutako amaiera.

11. artikuluan esaten denari jarraikiz, neurriak edo zehapenak berreziketaren balore eta printzipioekin bat bideratuko dira eta heziketaren, aurrea hartzearen eta prestakuntzaren inguruko neurriak sustatuko dira, soilik ekonomikoak edo hertsatzaileak direnen aurretik. Horregatik, bidezko zehapen ebazpena eman aurretik, komunitaterako zeregin edo lanak egiteko aukera eskaintzen ahal dio Udalak espedientatuari ezar litekeen isun osoaren nahiz zati baten orde; zein den arau-haustearen larritasuna, haren araberako eta proportzioko zeregina izanen litzateke.

Aukera hori arau-hausleen errehabilitazio bide bezala eskainiko da, eta horregatik, beharrezkotzat jotzen denean baino ez da aplikatuko:

Arau-haustek oso zehapen larria ezartzea dakarrenean.

Zehapen larria dakarren arau-haustea izanda, aurretik arau-hauste larriak edo oso larriak egin direnean.

Neurri hori hartzearen alde egiten duten baldintza bereziak ikusita, modu arrazoituan horrela erabakitzen denean.

Espedientatuak zer lan egiteko prest dagoen eskainiko dio Udalari. Ahal dela, komunitatearen onerako lan borondatezkoak izanen dira, gizalegezko jokabideak sortu edo antzeko ekintzen ondoriozko kalteak konpontzen dituztenak. Ardura duen udal alorrak kontrolatu eta bermatuko du betetzen direla.

Espedientatuak eskaera egin ondoan, prozedura ebazteko epea eten egingen da, eta egin beharreko zerbitzuaren baldintzak jakinarazi beharko dizkio Udalak arau-hausleari.

Udalak prozedura amaitzeko, espedientatuak egin beharreko zerbitzua zehaztuko du ebazpenaren ekitaldian, baita isunaren zenbatekoa ere, zehapena zerbitzuarekin osorik ordeztzen ez denean.

Kasu bakoitzeko inguruabarrak ikusita, Udalak badaezpadako neurriak hartzen ahal ditu, zerbitzua behar den denboran eta moduan betetzen dela bermatzeko.

Espedientatuak zerbitzuaren baldintzak onartu ondotik, zehapen prozedura amaitutzat joko da, Herri Administrazioen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legearen 88. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zerbitzua behar den denboran eta moduan betetzen ez bada, isuna ezarriko da, prozedura laburtuaren bidez erabakita. Hori zehazteko, hurrengo irizpideak hartuko dira kontuan:

Hasierako arau-haustearen larritasun bera izanen du arau-haustek.

Zehapena graduatzeko, berariazko astungarria izanen da Udalaren eta arau-hauslearen artean itundutako zerbitzua ez betetzea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza hau aldatuko da, betiere, Gazteriaren Etxeko zuzendaritzako organoak horrela erabakitzen duenean, Ondotik hura onesteko legeak ezartzen duen protokoloari jarraikiko zaio.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ordenantza honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, ondorio

juridiko osoak sorrararaziko dituela.

Iragarkiaren kodea: L0803500